

Txalapartak berrargitaratu du 'No me avergoncé del Evangelio' liburua

Euskalerrirratia 2019-09-23 14:03



Marino Ayerrak liburuan jaso zuen 1936ko estatu kolpean Altsasuk jasan zuen errepresioa.

Txalaparta argitaletxeak Marino Ayerraren *No me avergoncé del Evangelio* liburua berrargitaratu du; Nafarroan, eta zehazki, Altsasun, 1936an izandako errepresioaren testigantza esanguratsu eta gordina. Egilearen alabaren, Teresa Ayerraren bultzadaz argitaratu dute berriz lana, eta Altsasuko Udalaren lankidetzeta eta babesa izan dute horretarako.

Marino Ayerrak 1958an argitaratu zuen lana lehendabiziko aldiz, Periplo argitaletxearekin, eta gero beste zenbait edizio izan ziren, baina guztiak agortu ziren. Oraingoan, Txalapartak aurkeztu du.

Ayerra Irunberrin jaio zen 1903an, eta 1928an apaiz egin zen. 1936an Altsasura heldu zen, apaiz gisa, eta herrira heldu eta hurrengo egunean, estatu kolpea izan zen. 22 urte beranduago, liburu batean bildu zuen herriak urte hartan jasandako errepresioa. Liburuak arrakasta handia izan zuen. Oso garrantzitsua izan da kolpe militarren lehen egunetan gertatutakoa jakiteko, eta elizak jokatutako papera ezagutzeko. Hain zuzen, Jose Maria Jimeno Jurio edo Julian Casanovaren gisako historialariek ere erabili izan dute lana.

Txalapartak hartu du orangoan hura berrargitaratzearen ardura, eta Jon Jimenez editoreak adierazi duen moduan, hainetzat "ezinbestekoa" izan da la hori egitea, liburuak garrantzi handia baitu, 1936an gertatutakoa lehen pertsonan azaltzane duen testigantza bat delako.

Liburua modu klandestinoan saltzen zuten frankismoan, ebanjelioa balitz bezala. Eta, liburuak bezala, egileak ere pairatu zuen jazarpena. Hain zuzen, 1940an Hegoamerika alde egin zuen; lehenik Uruguaira, eta ondoren Argentinara. Hori izan zuen bizitoki 1988an hil arte. Hala, haren lanarekin, memoria historikoaren puzzlean pieza bat gehiago jartzeaz gain, idazlea berreskuratu eta haren izena berriz kalera atera nahi dutela adierazi du Jon Jimenezek.

Liburuaren egilearen alabak, Teresa Ayerrak, lanaren gogortasun eta krudeltasuna nabarmendu du, baina, era berean, gogortasunaren barruan atsegina dela adierazi du; eta ederra, besteak beste, deskribapenei esker garai hartara lekualdatzen duelako irakurlea. Zentzu horretan, Jon Jimenezek ere aipatu du liburuak, beste lan akademiko batzuek ez bezala, beldur eta kaos egun horien inguruko ikuspuntu emozional bat ematen duela.

Javier Olló Altsasuko alkateak idatzi du lanaren hitzaurrea, eta Teresa Ayerrak, berriz, epilogoia. Ollók azpimarratu du Ayerraren lana baliagarria dela Altsasuko historia osatzeko, eta egia ezagutzeko. Egilearen alabak, berriz, azaldu du nola jarraitu zuen haren aitaren historia atzerrira joan ondoren.

[Kultura Nafarroa](#)

Erantzun ▼



Ikusienak



[Sobratutako bazkaria etxera eramateko ontziak banatuko dituzte jatetxeetan](#)

Euskalerrria Irratia ira
24, 14:22 [Nafarroa](#)



[Nafarroan egunero 2.000 putazalek ordaintzen dute sexu truk](#)

Euskalerrria Irratia ira
24, 08:02 [Nafarroa](#)



[53 katu, 4 txakur, 3 untxi eta triku bat atera dituzte Arrosadiako etxabe batetik](#)

Euskalerrria Irratia ira
24, 07:56 [Iruñea](#)



[Alizia Iribarren: "Badirudi Gobernu berriak dirulaguntzak mantenduko dituela, baina oso eskasak dira"](#)

Euskalerrria Irratia ira
24, 20:19 [Nafarroa](#)



[Zabaleta: "EH Bilduk eta Geroa Baik batera aurkeztu beharko lukete A10ean"](#)

Euskalerrria Irratia ira
23, 22:06 [Nafarroa](#)



[Autokarabane ndako aparkalekua ezarri nahi du Iruñeko Udalak](#)

Euskalerrria Irratia ira
24, 13:27 [Iruñea](#)

Euskalerrria Irratia

Iratxe monasterioa 45, ezk. eskailera, 13. ezk.
31011 Iruñea - Nafarroa
(0034) 948 17 01 51
info@euskalerrriarratia.eus



Codesyntaxek garatua



[HONI BURUZ](#)

[LEGE OHARRA](#)

[PUBLIZITATEA](#)

[ARAUAK](#)

[HARREMANETARAKO](#)

[RSS](#)



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra





Gertuko informazioa, euskaraz

[AIARALDEA](#) [AIKOR](#) [ANBOTO](#) [ATARIA](#) [BALEIKE](#) [AIURRI](#) [ERRAN](#) [EUSKALERRIA IRRATIA](#) [GOIENA](#) [GUAIXE](#) [HIRUKA](#)
[KARKARA](#) [MAXIXATZEN](#) [PLAENTXIA](#) [ALEA](#) [28 KANALA](#) [ANTXETA](#) [BARREN](#) [ERLO TELEBISTA](#) [GEURIA](#) [GOIERRI TELEBISTA](#)
[KRONIKA](#) [MAILOPE](#) [NOAUA](#) [DEUSTUALDEA PREST](#) [TXINTXARRI](#) [URIOLA](#) [UZTARRIA](#) [AMEZTI](#) [OIZMENDI TELEBISTA](#)

[Gurean](#) [Plazanbazan](#) [Itap](#)

[Tokikom publizitatea](#)